

# **IKASLEEN BABESA ESKOLA ORDUETAN ETA EKINTZETAN. ISTRIPUAK ETA ERANTZUKIZUN ZIBILA**

## **(APLIKA DAITEKEEN DEN LEGEDIA ETA ERABILGARRI DIREN BALIABIDEAK)**

Ikasleen eta Ikastetxeetako ekintzen antolatzaile eta babesleen osasun babesari eta erantzukizunari buruz hainbat kontsulta egiten ari zaretela eta, txosten hau igortzen dizuegu, gai honen inguruan sortzen zaizkizuen zalantzen argigarri izango delakoan.

### **1. APLIKA DAITEKEEN LEGEDIA**

Hezkuntzarako Eskubideari buruzko uztailaren 3ko 8/85 Lege Organikoaren (LODE) 6.1. artikulua dioenez, ikasle orori ezagutzen zaizkio oinarrizko eskubide batzuk Ikastetxeko Eskola Kontseiluak onarturiko eskola ekintza, ekintza osagarri edo zerbitzuetan.

Eskubide horien artean dago familia ezbeharra edo istripua gertatzen denean babes soziala jasotzekoa, hau da, ikasleak ikasketak egiten jarraitzeko aukera emango dion pentsio bat jasotzea eta baita osasun asistentzia ere, kalte-ordainarekin, hala dagokionean; mediku asistentzia osoa eta farmaziako prestazioak, istripua gertatuz gero.

Gaur egungo araudiak derrigorrezko hezkuntzako ikasketak egiten ari ez diren ikasleetara mugatzen du Eskola Asegurua. Hau da, haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasleak ez dira aseguru honen onuradun.

Istripua gertatuz gero, derrigorrezko hezkuntzako ikasleek Gizarte Segurantzaren asistentzia jasoko lukete, Gizarte Segurantzak babesten ez duen orotarako dagokion babesa edo kalte-ordaina jaso badezake ere, indarrean den araudiaren arabera.

### **2. GIZARTE SEGURANTZA (OSAKIDETZA)**

#### **2.1. HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBHko 1. ZIKLOA**

Aurreko atalean azaldu denez, haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasleen gorputzeko kalteak Gizarte Segurantzaren sistemak babesten ditu eta gorputzeko kalteen kasu hauetan ezin egin daiteke ondare erantzukizunaren erreklamaziorik egin, gero ikusiko denez.

Honako baliabide hauek dira erabilgarri:

1.- Autonomia Erkidegoko haurren hortzak babesteko hortz-aho programa bat, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak babestua.

Programa honen bidez Euskadin bizi diren zazpi eta hamabost urte bitarteko umeei bermatuta dute oinarrizko hortz osasuneko asistentzia, eta, era berean, hortzen sorreran eragina duten ondoez eta patologia guztiak ere babesten ditu; programatik kanpo gelditzen dira, aldiz, ortodontziako tratamenduak.

2.- Bestalde, Osasunaren Lege Orokorrak, Konstituzioak agintzen duena beteaz, herritar guztien osasuna babesten du alderdi guztietan. Horri esker sistema berean txertatuta daude osasun asistentzia, bana-banako eta taldeko osasun prebentzioa eta gai honen irakaskuntza eta ikerketa.

Ondorio gisa, istripuen arriskuaren babesa Gizarte Segurantzak eskaintzen du ikasmaila hauetan, Konstituzioaren babes unibertsaleko agindua betez Gizarte Segurantzak babesturiko pertsonen ondorengoei, seme-alaba adoptatuei... Gizarte Segurantzaren Legeak ematen dien eskubidearen arabera.

## **2.2. - DBHko 2. ZIKLOA ETA DERRIGORREZKOAREN ONDOKOA.**

Hasieran adierazi den bezala, LODEk gizarte babeserako eskubidea ezagutzen dio ikasleari, funtsezko eskubideen artean, familia ezbeharrak edo istripua gertatuz gero.

Lege horren aurretik, ordea, 1953. urteko uztailaren 17ko Legeak (18ko BOE) Eskola Asegurua zehaztu zuen, Legeak berak adierazten eta zehazten zituen gertaera (istripu) eta egoeretan ikasleei babes egokia ematen zaiela bermatzeko. Eskola Aseguru hori Gizarte Aseguruaren sistema osatzen duten erregimen berezi gisa ezagutu da maiatzaren 30eko 2065/1974 Ebazpenaren 10.2 artikuluan, zeinak onartzen baitu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateratua (uztailaren 20 eta 22ko BOE).

Gaur egungo arauen arabera, Estatua da eskola aseguruaren erregulatzeko eskumena duen bakarra, Konstituzioko 149.1-17 artikulua eskumen eksklusiboa ezagutzen baitio Gizarte Segurantzaren oinarriko legegintzan eta erregimen ekonomikoan.

Eskola Aseguruak eusten dio Espainian Eskola Aseguruaren ezartzeko 1953ko uztailaren 17 Legeari (18ko BOE) eta Eskola Aseguruaren Mutualitatearen Estatuak onartu zituen 1953ko abuztuaren 11ko Aginduari (28ko BOE).

Eskola Aseguruaren aplikazio eremuan sartzen dira Espainiako estatuan honako ikasketak egiten diharduten 28 urtetik beherako espainiar ikasle guztiak:

- BBB, Batxillergoak eta DBHko 3. eta 4. maila.
- Lanbide Heziketa
- UBI
- Maila Ertaineko Unibertsitate Ikasketak
- Goi Mailako Unibertsitate Ikasketak.
- Doktoregoko Unibertsitate Ikasketak.
- Gizarte Bermeko programak.

Aseguru honen babes eremuaren barnean daude Europar Batasuneko kide diren estatuak eta Europako Ekonomia Eremukoko kide direnetakoak, eta oro har, espainiar ikasleen egoera berean dauden ikasle atzerritarrak, Espainian bizi eta lehen aipatutako ikasketak bertan ikasten ari direnak, 28 urte bete arte.

Eskola Aseguruak gertaera jakin batzuen aurreko babes ematen die bere onuradunei, eta ondoren laburtuta aditzera ematen diren prestazio hauek eskaintzen dizkie:

- Eskola istripuak
- Gaixotasuna
- Familia ezbeharrak

Eskola Aseguruaren prestazioak ezin batera daitezke aldi berean Gizarte Segurantzaren erregimen batean alta emanda duten afiliatuak onuradun izan daitezkeen eduki bereko eta hartatik eratorritako beste edozein prestaziorekin.

Kasu horietan, dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenetik jasoko dira prestazioak, eta Eskola Aseguruak ordainduko luke aldea, alderik balego.

### **3. ISTRIPU ASEGURUAK.**

#### **3.1.- HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBHko 1. ZIKLOA**

Legedi aplikagarria azaltzen duen atalean esan bezala, ikasmaila hauetan istripuen aurreko babesa ematea Gizarte Segurantzari eta BAIKARAREN bidez IGEek beren borondatez harturiko eskola aseguruari dagokie.

##### **3.1.1.- GIZARTE SEGURANTZA (OSAKIDETZA).**

Gizarte Segurantzak istripuen aurrean ematen duen babesa beste edozein kasutan haren onuradunari eskaintzen zaion berbera da, eta erreferentziazko Erietxe eta Ospitaletan ematen du beti:

- Mugarik gabeko osasun asistencia.
- Farmazia asistentzia.
- Hortzen osasunerako asistentzia, ortodontzia izan ezik.

Istripuen ondoriozko kalteen erreklamazioa (kalte-ordainak edo kalteak konpontzea) bide administratibo edo zibiletik egiten da, erantzukizuna Administrazioarena edo partikularrena den.

##### **3.1.2.- ESKOLA ISTRIPUEN BORONDATEZKO ASEGURUA.**

BAIKARA Federazioak ikasleentzako istripu aseguru bat egiteko aukera eskaintzen die bere bazkide diren Gipuzkoako ikastetxe guztiei; istripua duten ikasleen osasun laguntza estaltzen du aseguru horrek, nagusiki.

2008-09 ikasturteari dagokionez, halere, berrikuntza batzuk badaude, adibidez, aseguru etxearen aldaketa; izan ere, datorren ikasturteik aurrera, MAPFRE aseguru etxearekin kontratatuko dugu aseguru. Aldaketa horren arrazoia hauxe da: estaldura eta osasun laguntza hobea eskaintzen du, baina 07-08 ikasturteko prezioa aldatu gabe (10,75 euro)

Hauexek dira eskolako istripu aseguruaren ezaugarri nagusiak:

#### **ESPARRUA:**

- Polizaren estaldurak istripu hauetako osasun laguntza bermatzen du:
  - Ikastetxearen eremuan edo instalazioan gertatutako istripuak.
  - Ikastetxearen zuzendaritzaren edo IGEaren ardurapean ikastetxearen eremutik edo

instalazioetatik kanpoko jardueretan gertatutako istripuak, istripua gertatzen zaienak ikastetxeko ikasleak badira, betiere.

- Goiko ataletan aipatutako jarduerak egiteko joan-etorrietan gertatutako istripuak, joan-etorria motorrean egiten denean izan ezik.
- Osasun gastuen estaldurak Espainiako estatuan eta Frantziako Behe Pirinioetako lurraldean gertatutako istripuak estaltzen ditu, baita Espainiako lurraldetik kanpo egindako txangoetan edo bidaietan gertatutakoak ere, baldin eta irteerak hiru egunetik beherako iraupena badu.

## OSASUN ASISTENTZIA, IKASTETXEAN BERTAN

Istripuren baten ondorioz osasun laguntza behar izanez gero, ikastetxeak laguntzarako telefono zenbaki batera deitu behar du (Call Center), eta laguntzarako zenbaki horretatik, sendagile eta erizainen arreta emango dute; behar izanez gero, sendagilea bidaliko dute ikastetxera, istripua izan duen ikaslea artatzera.

Osasun gastuen bermea dagokien ezbeharrak aseguru etxeak poliza honetarako hitzartutako mediku zerbitzuari jakinarazi behar zaizkio.

## OSASUN GASTU MUGAGABEAK

Aseguru etxeak istripua gertatzen denetik bi urtera arteko osasun gastuak bermatzen ditu.

Istripuaren ondorioz odontologoaren laguntza behar izanez gero, aseguruak zerbitzu hauek estaltzen ditu: odontologia arreta, protesiak ezartzea, ortodontzia edo hortzetako ortopedia gailuak, ezbeharreko 1.500,00 euroko gehieneko mugaraino.

## KALTE-ORDAINAK

- Heriotzagatikoa: 1.500 euro
- Ezintasunagatikoa: 12.020,00 eurora arteko baremoa, gehienez.

**2008-09 ikasturterako istripu aseguru honen kostua ikasleko 10,75 eurokoa izango da.**

### **3.2.- DBHko 2. ZIKLOA ETA DERRIGORREZKOAREN ONDOKOA.**

Aurreko eskaintza bera ikasmaita hauetako ikasleentzat ere bada baliagarria, baina lehen hezkuntzako ikasleak ikusten dira Ikastetxean istripuak jasateko arrisku gehien duten ikasle bezala. Era berean, Derrigorrezko Eskola Asegurua izan arren, aseguru hark eskaintzen dituen prestazioak mugatuak zirela ikusita, ondoren azaltzen den aseguru osagarriaren bidez babesa zabaltzeko erabakia hartu zen bere garaian.

Hortaz, ikasmaita hauetan honako bi babes hauek ditugu: derrigorrezkoa bata – Derrigorrezko Eskola Asegurua- eta bestea osagarria –Istripu Aseguru Osagarria-.

#### **3.2.1.- DERRIGORREZKO ESKOLA ASEGURUA.**

Aseguru honen lege oinarria eta ezaugarriak azaldu dira dagoeneko, eta, hortaz,

aseguru honen onuradunek gertaera jakin batzuen aurrean jaso ditzaketen prestazioen eta babesaren berri emango dugu orain.

- Eskola istripua: Eskola istripuztat hartzen dira asegurdunek ikasle izatearekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten ekintzak eginez jasaten dituzten gorputzeko kalteak, kirola egitean, batzarretan edo karrera amaierako bidaietan eta gisakoetan gertatutakoak, beti ere Ikastetxeak antolatu edo onetsitako ekintzak badira.

Honako prestazio hauek eskaintzen ditu:

- o asistentzia medikua eta farmazeutikoa (erietxeko egonaldia eta kirurgia barne). Ikasleak eskubidea du medikua eta erietxea aukeratzeko. Zentro hitzartua ez bada, zentro hitzartuak egonik, aseguruak ordaintzen ditu fakturak bere tarifaren arabera eta ikasleak ordaindu beharko du diferentzia, diferentziarik baldin badago.
- o Ezintasunaren ondoriozko kalte-ordainak:
  - β Ezintasun erabateko eta iraunkorra, lehen aipatutako ikasketetan ari direnentzat: 150,25 euro eta 601,01 euro artean.
  - β Ikasketak egiteko ezintasun nabarmena, bizitzako ekintza nagusietarako ezintasuna: urteko 144,24 euroko hil arteko pentsioa.
  - β Istripua gertatuz gero sor daitezkeen lekualdatzearen ondoriozko gastuak Aseguruak ordain ditzake, baldin eta medikuak oniritzia ematen badu.
- o Hiletako gastuak:
  - β Heriotzaren kasuan, hileta gastuetarako 30,05 euro ematen zaie senitartekoei. Baldin eta istripua familiaren egoitza ez den beste leku batean gertatu bada, 30,05 eta 120,20 euro arteko gastuak izan daitezke.
  - β Hildakoak bere kargu bazuen emaztea, seme-alabak, guraso edo 65 urtetik gorako edo edozer lanetarako ezintasuna duen asabarik edo adinez nagusi ez den anaia-arrebarik, 300,51 euroko kapitala emango zaie.

- Gaixotasuna:

Honako prestazio hauek eskaintzen ditu:

- o Erabateko mediku asistentzia, erietxeko egonaldia barne, kirurgia arrunta, neuropsikiatria, biriketako tuberkulosia eta hezurretakoa eta tokologia. Kasu honetan ere medikua hautatzeko aukera du kaltetuak, istripuen kasuetarako baldintza berekin.
- o Erabateko asistentzia farmazeutikoa erietxean sartuz gero; ambulategi tratamendua izanez gero, tratamenduaren kostuaren %70 ordainduko du aseguruak eta onuradurak ordaindu beharko du beste %30a.
- o Hileta gastuak eritasunak jotako afiliatua eritasunaren ondorioz aseguru hartu eta bi urteko epean hiltzen bada ordainduko dira soilik, eta ikasten jarraitzeko ezintasuna heriotza arte luzatu den kasuetan beti ere. Hona hemen zenbatekoak:
  - β Gaixotasunak heriotza badakar, hildakoaren senitartekoei 30,05 euro emango zaizkie hileta gastuak

ordaintzeko. Gaixoa ez bada familiaren egoitza dagoen lekuan bertan hiltzen, 30,05 eta 120,20 euro artekoa izan daiteke kopurua.

- β Gainera, ikasleak bere kargu bazuen emaztea, seme-alabak, guraso edo 65 urtetik gorako edo edozer lanetarako ezintasuna duen asabarik edo adinez nagusi ez den anai-arrebarik, 300,51 euroko kapitala emango zaie.

Kasu jakin batzuetan fisioterapia, kobaltoterapia, radiumterapia, giltzurri artifiziale eta erradioterapia ordaintzeko prestazioak eman ahal dira.

#### - Familia ezbeharra

Familia ezbeharra gertatuz gero prestazioa ematearen helburua ikasleari hasita duen karrerako ikasturteak normaltasunez amaitzeko aukera ematea da.

- o Honako kasu hauetan eskainiko zaio prestazioa:
  - β Familiaburuaren heriotza.
  - β Familia erreka jotzea edo kiebra ajsatea. Inola ere ez da kiebratzat hartuko ikasketak ordaintzeko etengabeko baliabide ekonomiko falta.
- o Familia ezbeharraren ondoriozko prestazioen urteko kopuruak honako hauek dira:
  - β 86,55 euro familia ugarikoak ez diren ikasleentzat.
  - β 103,85 euro lehen kategoriako familia ugariko ikasleentzat.
  - β 112,51 euro bigarren kategoriako familia ugariko ikasleentzat.
  - β 129,82 euro ohorezko kategoriako familia ugariko ikasleentzat.

Ezbeharra gertatu den hilabetearen hurrengo hilabetearen 1etik aurrera emango da.

Ikasleari karrera normal eta ikasturterik errepikatu gabe amaitzeko behar dituen urteetan emango zaio prestazio hori. Nolanahi ere, onuradunak 28 urte betetzean bertan behera geldituko da prestazioa.

Bateragarritasuna: ikasketa beka ororekin bateragarria da

## 4.- ERANTZUKIZUN ZIBILA

Erantzukizun zibil legezkoa da pertsona batek –izan pertsona fisiko zein juridiko– egin duen eta nolabaiteko errua edo erantzukizuna izanik kalteak –dena delakoak (gorputzekoak, materialak, ondarearenak edo moralak)– eragin dituen ekintza, akats edo betebeharrak batean huts egitearen ondoriozko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea ezagutzen duen oinarri juridikoa.

3.1.1 puntuan azaldu den bezala (Gizarte Segurantzaren bidezko zaintza (OSAKIDETZA)), osasun prestazioaz gainera nolabaiteko kalte-ordaina edo istripua izan duen ikasle bati eranginako kalteak konpontzea lortu nahiko balitz, alde aurreko

beharrezkotasunezko harremanik egon gabe, erregimen juridiko bikoitzari jarraitzen dio erantzukizun zibilak:

- Administrazioaren erantzukizuna
- Partikularren erantzukizuna.

Hortik araudi bereizia eratortzen da:

- lehenengo kasua Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/92 legeak eta Prozedura Administrazio Arruntak (139tik 146ra bitarteko artikulua) arautzen dute.
- bigarrena, berriz, Kode Zibileko arauak arautzen dute (1902 eta 1903 artikulua).

Urtarrilaren 7ko 1/92 Legearen bidez, Kode Zibileko 1903 artikulua 5. paragrafoa ezabatu egin zen, eta honela gelditu zen: “goi mailakoa ez den ikastetxe bateko titular diren pertsona edo entitateek erantzungo dute adinez nagusi ez diren ikasleentz, ikasle horiek ikastetxeko irakasleentz kontrolpean edo zaintzapean dauden denboran, eskola jardueretan, eskolaz kanpokoetan zein jarduera osagarrietan ari direnean. Artikulu honek arautzen duen erantzukizuna bertan behera geldituko da lehen aipatutako pertsonen kaltea eragozteko familiaburu baten prestutasuna erabili dutela frogatzen dutenean”. Paragrafo honetan titulartasun publikokoak ez diren ikastetxeen dihardu, titulartasun publikokoak direnean azaroaren 26ko 30/92 Legeak zehazten baitu erantzukizun zibileko sistema.

Administrazioaren erantzukizuna da gertaera eragin duen ekintzaren edo zerbitzuaren titularra administrazioa bera denean, eta erantzukizun objektiboa da, hau da, automatikoki egozten da Legeak aurreikusten dituen egoeretan.

Azaroaren 26ko 30/92 Legearen 139.1 artikulua dioenez, “partikularrek kasu bakoitzean dagokien Administrazio Publikoen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute beren ondasunek eta eskubideek jasaten duten edozein urratzeren ondorioz, salbu eta ezinbestekoak diren kasuetan, beti ere kaltea zerbitzu publikoen funtzionamendu normal edo anormalak eragina bada”, eta, jakina, irakaskuntza zerbitzu publikoa da.

Urtarrilaren 7ko 1/92 Legearen bidez bideraturiko berrikuntzaren helburua zen (Kode Zibila) ikasleentz kalteen edo zaurien aurrean erantzungo zuena (baita ikasle batek beste ikasle bati eraginen aurrean ere) ikastetxeen titular diren pertsonak edo entitateak izan zitezten, horiek hartu behar baitituzte antolaketari dagozkion neurriak, tasatutako kasuetan titularrak gero irakasleei kopuru hori eskatzeko kalterik gabe (hau da, ordaindu behar izandakoa itzul diezaioten eskatzeko kalterik gabe).

Hala ere, eskola orduetan istripuren bat jasan duten Ikastetxe publikoetako ikasleei dagokienez, datu adierazgarria ez da kaltea zerk edo nori eragin duen, baizik eta kalte hori irakaskuntzaren zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren ondorioz gertatu den ala ez, horren arabera erabakiko baita kaltea Administrazioari egotzi behar zaion ala ez.

Administrazioaren erantzukizuna objektiboa izatearen kalterik gabe, hau da,

administrazioak automatikoki erantzun beharko du ez soilik bere funtzionario eta agenteek eragindako kalteez, baizik eta baita bestek eraginkoez, baldin eta zerbitzua eskaintzen den erakundearen baitakoak badira beste agente horiek, Administrazioak kaltearen errudunaren kontra errepika dezake ordainketa eskaera. Itzulketa hori kaltearen eragilearen arabera aldatzen da, hau da, ez dago berdin araututa eragilea autoritatea denean eta partikularra denean.

Legearen arabera, Administrazioak erantzun behar luke adinez nagusi ez diren ikasleei eragindako kalteen aurrean honako kasu hauetan:

- irakasleen kontrolpean eta zaintzapean dauden denboran.
- eskola ekintzak, eskolaz kanpokoak eta osagarriak egiten ari diren bitartean.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak aseguru bat du erantzukizun zibileko kalteak babesteko.

BAIKARAK, eskolaz kanpoko ekintzetan eta ekintza osagarrietan gertaturiko kalteen aurrean Administrazioak eman beharreko erantzunari Legeak ezagutzen dizkion salbuespenak edo oharrak kontuan hartuta, Federazioko kide den IGE bakoitzarentzat erantzukizun zibil orokorreko poliza bat kontratatzen du HELVETIA CVN SEGUROS aseguru etxearekin, honako babes hau eskaini dezan:

- Espainiar lurraldeta eta EEEdo herrialdeak.
- Polizan agertzen diren ikasleen Guraso Elkarteei dagozkien ekintzak.
- Babesturiko bermeak eta ezbeharreko eta urteko aseguraturiko gehieneko kopuruak:
  - o Esplotazioko Erantzukizun Zibila **1.-**: 300.506,05 euro.
  - o Fiantza eta defentsa penala: Barne
  - o Erantzukizun Zibil Patronala **2.-**: Barne. Biktimako muga: 60.101,21 euro.
- Baldintza bereziak:
  - o Aseguratuak dira Elkartearen lehendakaria
  - o Batzordeko kideak eta ordezkari legalak.
  - o Langileak, beren funtzioak egiten ari direnean, baldin eta BAIKARArekin kontratua badute.
- Poliza honek babesten duen Erantzukizun Zibila Guraso Elkarteari, Zuzendaritza Batzordeari eta Batzorde horrek berak antolaturiko ekintzak aurrera eramateko ordezkari izendatzen duen beste edonori egotz dakiokena da.
  - o IGEaren ekintzetan sor daitezkeen kalteen aurrean IGEak izan dezakeen erantzukizuna babesten du.
  - o Ikastetxean egiten diren hainbat ekintza babesten ditu, adibidez:
    - ß Eskolak eta eskolaz kanpoko ekintzak (baita esperimentalak ere), ikasleen hezkuntza eta zaintza.
    - ß Kirol jarduerak.
    - ß Ikasleen bisita kulturalak eta txangoak, eta aterpetxeetako eta egoitzetako egonaldiak, beti ere ekintza IGEak edo haren onespenearekin antolatua eta finantziatua bada.



β Eskolako festak, gurasoen bilerak eta bere jardueraren esparru arruntaren baitako bestelako ekitaldiak.

Hurrek, ikasleek, apendizak edo estudianteez IGEaren ardurapean dauden bitartean jasan litzaketan kalteak.

Aseguratutako establezimenduan banatutako janari edo edariak, intoxikazioa barne, banaketa IGEaren kontrolpean eta hark antolatuta egin bada.

Poliza honek ikasleek IGEaren zaintzapean edo kontrolpean dauden bitartean sor ditzaketan kalteen erantzukizun zibila ere babesten du.

- EZ DITU BERE BAITAN HARTZEN, ETA BERAZ, EZ DITU BABESTEN:

- o Ikerketa eta peritatze ekintzak, edo ekintza ez ohiko edo arrisku berezikoak.
  - o Ikasleen erantzukizun zibila IGEaren jabegoko edo haren esku dagoen ondareari edo bestek IGEen esku utzitakoei eragindakoen aurrean.
  - o Ikastetxearen erantzukizun zibila, eta zuzendaritzako kideei, irakasleei, irakasle ez diren langileei etab. egotz dakiekena.

Aseguruak aipatzen duen arrisku eta babesari dagokion istripua gertatuz gero aseguruaren edo aseguruak babestutako pertsonen gorputzean kalteak edo zauriak gertatzen bazaizkio, istripuak zuzenean eragindako kalteen ordaina eskatuko du Konpainiak, kaltetuaren izenean. Kalte-ordainen eskaerak 15.025,30 euroko muga du.

#### **ONDORIOAK:**

**1. Istripuak Gizarte Segurantzak (OSAKIDETZA) edo/eta familiek, IGEek edo ikastetxeak berak beren borondatez harturiko istripu aseguruak babesten ditu.**

**Horretarako, komenigarria da istripu aseguruaren harpide ez diren Ikastetxeek ikasleei Osakidetzaren banakako osasun asistentziako txartelaren kopia eskatzea (txartel urdina) edo familiaren aseguruarena, bestela, eta Autonomia Erkidegotik kanpo egun bat baino gehiagoko bidaiak egitekotan, Gizarte Segurantzaren lekualdatze kolektiboko txartela egitea (gurasoen Gizarte Segurantzako txartel guztiekin, Gizarte Segurantzaren bulegoetan).**

**2. Eragindako kalteen ordainak Eusko Jaurlaritzaren erantzukizun zibileko aseguruak babesten ditu, baldin eta kaltea Administrazioari egotz badakioke, eta IGEaren erantzukizun zibileko aseguruak, berriz, delako kaltea IGEari egotzen bazaio.**

1.- Esplotazioko Erantzukizun Zibila: Kontratuz kanpoko erantzukizuna babesteko modalitateari dagokio, Kode Zibileko 1902 artikulua eta ondorengoek arautzen dutenaren arabera,

enpresaren esplotaziotik eratorritako eta besteri eragindako kalte material edo gorputzekoetarako, edo horien ondoriozkoetarako. Kontzeptu honetan sartu behar dira honako ekintza hauen ondorioz sorturiko kalteak:

Elkartearen jarduera egiten den lokalaren edo instalazioen jabe gisa eragindakoak. Adibidez, Elkartearen jarduera egiten den gunean dagoen etxe, lokal, altzari eta abarri urak eragindako kalteak.

Langileek beren eginbeharrak egitean sorturikoak, bai lokalean bertan bai besterenetan eragindakoak. Pentsatu adibidez monitore batek haur bati zauria egiten diola nahi gabe edo etxean tresna bat apurtzen duela, haurrak zaintzen ari den bitartean.

Enpresak eskaintzen dituen zerbitzu orokorretan sorturikoak, adibidez jangela, haurtzaindegi eta abarretan sorturikoak.

Kanpo gelditzen da fabrikaturiko produktuen erantzukizuna, langileei eragindako kaltea, eta baita kalte materiala edo gorputzekoa sorburu ez dutenak.

Lehenengo partean ikusi den bezala, modalitate honek Kontratuz kanpoko Erantzuzkin batetik erator daitezkeen arrisku gehienen aurreko babesa ematen du.

2.- Langileekiko Erantzukizun Zibil Patronala, Laneko Segurtasun eta Higiene neurriak ez finkatu edo betetzeagatik. Gizarte Segurantzako Oinarrien Legearen 97. artikulua, 3. atala. Laneko istripu baten ondoriozko kalte-ordaina jaso daiteke nahiz eta langileak Laneko Mutua Patronalearen konpentsazioak, Gizarte Segurantzaren beste prestazio batzuk edo enpresak zein langileak kontratatutako beste polizen prestazioak jaso.